

## ELGOIBAR



Bi ikastetxeetako gurasoen elkarlanari esker, arrakastatsuak izan ohi dira irteerak, iaz Mutrikutik Ondarroara egin zen zen hau bezalaxe. MORKAIKO

## Urriaren 27an abiatuko du Morkaikok haurrentzako mendi irteeren egutegia

Gaztetxoen artean mendizaletasuna bultzatzeko xede, Herri Eskola eta Ikastolarekin batera antolatzen ditu ikasturte osoan zehar

## A.U.

ELGOIBAR. Hilaren 27an abiatuko du Morkaiko mendi elkartea Herri Eskola eta Ikastolarekin batera haurrentzat antolatu ohi duen mendi irteera. Gaztetxoen artean mendizaletasuna bultzatzea da ekimen honen xede eta batzuen eta besteen artean atondu dute dagoeneko 2024-2025 ikasturteko egutegia.

Irteerak hilean behin egingo dira, urritik maiatzera bitartean.

Lehena, hilaren 27koan, urte sa- soiari loturik, mikologia eta hazi bilketa irteera izango da, Maala- ko parketik abiatuta; bigarrena, azaroaren 24an egingo dute Irukurutzeta (898 metro) Elosu- tik abiatuta eta Polpoletik pasa- tuz. Urtea amaitu aurretik, aben-



Iazko beste ibilbideetako bat, Kalbariora. MORKAIKO

duaren 15ean, Aitzbeltzera joango dira, Mendaroraino trenean gerturatuz. Urtarrileko irteera Mutrikuko Olatz auzotik barrena egingo dute, PR GI-47 bidea ja- rraituz, 26an.

Otsailaren 16an, berriz, Bizkaia aldera abiatuko dira, Mendiola inguruan Txakurzulo ibilbidea, PR BI-86, jarraitzen. Martxoaren 16rako Madarixa-Urnobitzan

Arriaga ibilbidea dute aurreikusita. Eta apirilaren 27an, Sakanetara joango dira. Mendi irteeren egutegia behar den moduan amaitzeko, maiatzaren 10ean Morkaiko Eguna ospatuko da.

Irteera guztiak goizko 9:30ean Mintxetako aparkalekutik izango dira eta trenetxoz ibilbidea, Elgoibarko Geltokian elkartuko dira parte-hartzale guztiak.

## MENDI IRTEERAK

- **Urriak 27.** Mikologia eta hazi bilketa irteera.
- **Azaroak 24.** Elosu-Polpol-Irukurutzeta (898 metro).
- **Abenduak 15.** Aitzbeltz (Men- dario).
- **Urtarrilak 26.** Olatz (Mutriku) PR GI-47.
- **Otsailak 16.** Txakurzulo (Mendiola) PR BI-86.
- **Martxoak 16.** Madarixa-Urnobitz-Arriaga.
- **Apirlak 27.** Sakoneta.
- **Maiatzak 10.** Morkaiko eguna.

Morkaikotik azpimarratu dutenez, haurrek gurasoen ardura- pean joango dira beti.

Era berean, ohartarazi dute egutegia dagoeneko itxita bada- go ere, posible izango dela arra- zoi desberdinengatik programa aldatzea. Era berean, eguraldi txarragatik abisu edo alertarik emanda badago, irteera bertan behera geldituko da.

**Mañana se celebra la mesa redonda 'Mujeres que no son madres', sobre la no-maternidad**

## J.LEON

ELGOIBAR. Lila, la Casa de las Mujeres acogerá mañana una mesa redonda en castellano bajo el título 'Mujeres que no son madres'.

Esta cita, que se celebrará de 18.00 a 20.00 horas, contará con la participación de las psicólogas Arantza Álvarez y Eider Pérez, especializadas en sexología y terapia de parejas.

Según explican desde el departamento municipal de Igualdad, las participantes en la mesa redonda organizada para este lunes «ofrecerán un espacio de diálogo y reflexión abierto a toda la ciudadanía».

Concretamente, durante la charla se conversará sobre los aspectos emocionales, familiares, sentimentales y sociales de las mujeres que no son madres, abordando también recomendaciones terapéuticas para afrontar los posibles retos tanto para ellas como para sus parejas.

El evento que se llevará a cabo este lunes en la Casa de las Mujeres de Elgoibar está abierto a la asistencia de todas las personas interesadas; con la particularidad de que «para participar es necesario inscribirse previamente a través del enlace de Internet <https://labur.eus/lila2024> o escaneando el código QR disponible en el cartel».

El Ayuntamiento de Elgoibar y Lila animan a todas las personas interesadas a participar en la actividad.

**Las psicólogas Arantza Álvarez y Eider Pérez serán las ponentes del acto, que está abierto a toda la ciudadanía**

Elgoibarren zerbitzu integrala eskeintzen duen ehortetxe bakarra: beilatekia eta errausketa-labea leku berean duena.

Única funeraria que ofrece un servicio integral en Elgoibar: tanatorio y crematorio en el mismo lugar.



Elgoibarko bulego berria  
Nueva oficina de Elgoibar

Bernardo Ezenarro, 15  
T. 943 747 386



Xixilon, 3  
(Polígono SIGMA Industrialdea)